

Ramiro Gonzálezek dio Ekarpenen Lege berriak 2022-2026 aldirako lurralde historiko guztien finantza-nahikotasuna bermatzen duela

Diputatu nagusiak ontzat jo du Finantzen Euskal Kontseiluan gobernuko erakunde-maila guztiek ekarpenen lege berri baten proiektuari buruz lortutako akordioa

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 19a. Arabako ahaldun nagusiak agerraldia egin du gaur goizean Batzar Nagusietako Ogasun Batzordean, Finantzen Euskal Kontseiluak joan den asteko uztailaren 15ean egindako bileran jorratutako gaien berri emateko.

Agerraldian, Ramiro Gonzálezek adierazi du "gure lurraldean susperraldi ekonomikoaren testuinguruan, azken hilabeteetako zerga-bilketaren datuek erakusten duten bezala, lortutako akordioak euskal erakunde-sistemaren sendotasuna eta EAEko erakundeek akordioak lortzeko eta elkar ulertzeko duten gaitasuna" bermatzen dituela.

Diputatu nagusiak azaldu duenez, koefiziente bertikalaren ehunekoaren aldaketa (% 70,04tik % 70,81era igo da) eskualdatze-eragiketa bat besterik ez da, eta eragin finantzario neutroa du Aldundientzat: "Aldaketa horren arrazoa da Eusko Jaurlaritzari transferitutako hainbat eskumen balioesten diren zenbatekoen koefiziente bertikalaren barruan sartzea, orain arte aldundiek ordaintzen baitzituzten ekarpen berezien bidez, eta orain ekarpen orokorren bidez".

Egokitzapenerako Funts Orokorrari buruzko artikuluen idazketaren aldaketari dagokionez, Gonzálezek azaldu du eutsi egiten zaiola aldundi bakoitzaren diru-bilketa koefiziente horizontalaren % 99ra iristen dela ziurtatzeko helburuari, eta indartu egiten dela Funtsaren mekanismo egonkortzailearen izaera.

Egokitzapenerako Funts Orokorrari buruzko artikuluen idazketa-aldaketa, Funtsa banatu beharreko baliabideen % 1,45eraino handitzea dakarrena, gaur egungo metodologiaren % 1aren aldean, oso garrantzitsua da, ahaldun nagusiak azaldu duenez: "Izan ere, orain arte Funtsaren bigarren tarte LHEKren akordio bat berritzearen mende zegoen, eta idazketa berriarekin jada lege batean sartuta eta finkatuta dago, eta horrek berme handiagoa ematen die aldundiei."

"2019ko otsaileko EJZn lortutako akordioa lege mailara igotzea mugarri garrantzitsua da, lurralde historiko guztien finantza-nahikotasunaren printzipioaren bermea delako", esan du Ramiro Gonzálezek.